


TEORIA ANTROPOLOGIKOEN ESKEMA

	Bilakaera	Difusionismoa	Partikularismo Historikoa	Funtzionalismoa Estruktural-funtzionalismoa	Estrukturalismoa	Sinbolismoa
Sorrera garaia eta tokia	XIX. mendearen erdialdea (Ipar Amerika eta Europa-Britania Handia)	XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera (Europa- Britania Handia)	XX. mendearen hasiera (Ipar Amerika)	XX. mendearen hasiera (Europa- Britania Handia)	XX. mendearen bigarren erdialdea (Europa- Frantzia)	XX. mendearen azken hamarkadetan (Europar eta Ipar Amerikan)
Antropologo aipagarrienak	L. H. Morgan (1818-1881) E.B. Tylor (1832-1917)	Fritz Graebner (1877-1934) Fr. W. Schmidt (1868-1959)	Franz Boas (1858-1942)	A.R. Radcliffe-Brown (1881-1955) B. Malinowski (1884-1942)	C. Levi-Strauss (1908-2009)	V. Turner (1920-1983) C. Geertz (1926-2006)
Oinarrizko irizpide teorikoa	Ez dago harremanik kulturen sorreran baina guztiek garapen estadio edo maila berdinegatik pasa dira prozesu hau lineala delarik. Mendebaldeko gizartea da zibilizazio maila gorena duena (ikuspegi etnozentrista)	Kulturek asmakuntza gaitasun murriztua dute eta beraien joera naturala beste kulturak imitatzea eta kopiatzea da. Zibilizazioaren elementuak Egipton sortu ziren eta hortik zirkulu kulturalen bitartez mundura zabaltzen ziren.	Teoria eboluzionista zalatzea. Horren ordez, kultura aniztasuna nagusi dela eta kulturek amankomunean dutena euren arteko ezberdintasuna dela defendatu zuen. Kultura bakoitza bere prozesu historiko eta giza antolakuntzaren emaitza da.	Ez dira lege orokorrik existitzen errealitatea ulertzeko, aldiz, esperientzian oinarritutako ezagutza lortu behar da; fenomeno sozial bakoitza bere testuinguruan aztertu. Kulturak funtzio zehatza betetzen du gizartean.	Gizakion adimen batasuna existitzen da eta hau kulturari esker ematen da. Kulturaren inbarianteak unibertsalak dira eta horiei esker mundu osoko pertsonak elkar uler gaitzke arau multzo unibertsalak existitzen diren heinean. Aldiz, aniztasun kulturala bakarrik praktikan ematen da.	Gizakiek sinboloetatzen erabileraz arduratzen da eta konkretuki, ekintza sinbolikoaren ondorioak gizartean aztertzen ditu. Gizarte indar aktiboak dira sinboloak norbanakoen interesak asetzen dituenak, elkartasuna mantentzen laguntzen dute ere.
Kontzeptu teorikoak	Garapen lineala	Konplexu kultural Mailegua Zirkulu kulturalak	Aniztasun kulturala Erlatibismo kulturala	Funtzioa Gizarte egitura Erakundea	Egitura Inbarianteak	Sinboloak Ekintza sinbolikoa
Zein ikuskera du kulturaz?	Bakarra eta unibertsala da. Aspektu tekniko (materiala) eta ez	Bakarra eta unibertsala da. Konplexu edo egitura ezberdinez osatzen da eta hauek zabaltzen dira zibilizazio	Guztiak paregabeak dira hauen bilakaera historiko partikularren emaitza direlako.	Unibertsala da. 1) Gizakion beharizan biologiko eta psikologikoak asetzen dituenak	Unibertsala. Giza egituraren adierazpena da hau, ideien munduan dagoelarik bakarrik.	Sinbolo sistema bat da gizakion praktika soziala gidatzen laguntzen duena.

	materialen multzoaz osatua.	guneetatik beste guneetara.	Konplexutasun kulturalen erlazioak ematen dira baina norabide guztietara. Bakoitza bere testuinguruaren arabera aztertu behar da.	2) Norbanakoak gizartearen beharrietara menperatzen duena	Komunikazioa ahalbidetzen duen sistema sinbolikoa da.	Kontrol mekanismo bat bada ere gizadiaren ezaugarriak baldintzatzen baititu. Ez dago ideien munduan, eguneroko praktikan baizik.
--	-----------------------------	-----------------------------	---	---	---	--



Bilakaera teoriari aurre egiteko proposamen teorikoak. Ezagutza enpiriko eta etnografikoari garrantzia handiena. Ikuspegi positibista nagusi: gizartea, gorputzaren metáfora.

Ikuspegi positibista gaitzen da.